



## 1. Haur Literaturaren txokoa

Gaur proposatzen ditugun liburuetan gai multzo bat jarriko dugu mahai gainean. Haur txikien gatazkak, eta gatazka horiei aurre egiteko adibideak: jaiotza eta historia pertsonalak, zenbait egoeren aurrean ematen den koldarkeria, eta elkarrekintzaren inguruko irakurketa bat. Tonu alai eta umoretsuan aurkezten dira gatazkak, eta horiei aurre egiteko bidea.

Beraz, oraingo proposamenen, berriz ere, haurren emozioetan eta beraiek bizi dituzten kontraesanetan murgilduko gara. Ipuinen protagonisten sentimenduak aztertuz, haurrek bat egingo dute haiekin, eta beren portaera hobeto ulertuko dute. Bideratzen ditugun kontaketa eta proposamenek haurrek beren sentimendu eta emozioetan murgilduko dituzte.

[Arturo. Oli eta Marc Taeger](#)

[Oilobustia. Émile Jadoul](#)

[Motx eta Potx: zuloa ala muinoa. Marcus Pfister](#)

## 2. Egitasmoa martxan

Egitasmoaren egunerokotasunari begiratzeko honetan, gaurkoan, BULARRETIK MINTZORAK biblioteketan orain arte izan duen eragina ekartzen dugu gogora. 2012ko gurasoen azken ebaluazioan argi agertzen da bibliotekaren erabilpena areagotu eta hobetu egin dela. Hau da, maileguaren kopurua handitu egin dela modu nabarmenean. Aldi berean, mailegatutako baliabide mota aldatu egin ote den aztertu da. Aldagai honen inguruan ere baikorrak gara gure egitasmoaren eragina aztertuta. Emaizta hauek Juan Karlos Alonsok aztertzen ditu [atal honetan](#).

## 3. Hausnarketa gunea

Tradiziozko ipuinez ari garenean, zertaz ari gara?

Herriz herriko ibilaldietan, irakasle eta guraso askoren inpresioak jasotzen ditugu, hala nola kezka eta kontrajartzen diren iritziak eta ideiak. Egun, Haur Literaturari ez zaio lanketa berezirik eskaintzen Irakasle eskola guztietan, eta lantzen den horietan, ez dute hau espezialitate guztietara zabaltzen. Beraz, sarri, ipuinaren erabilpena testu liburuetan erakusten diren bertsioetara mugatzen da, eta harrigarriak dira benetan, testu liburu horietan ipuinei buruz ematen dituzten bertsioak.

BULARRETIK MINTZORAN beste ikuspegi bat eman nahi dugu: ikuspegi hau antropologian, nahiz psikoanalisian oinarritzen da batik bat, eta mundu guztiko ikertzaileak bermatzen dute. [Hausnarketa txiki bat](#) aurkezten dugu gaurkoan, eta gai honekin lanean jarraitzeko asmoa adierazi nahi dugu.

## 4. Ongi pasatzeko!

Gaurkoan, bide digitala erabiliko dugu. Ipuinak abiapuntu hartuta, oinarritzko nozioak lantzeko material digitala [ikusteko aukera](#) duzue hemen. Hau gaztelera dator, baina joan dedila eredu gisa.